

METODOLOGIA

Ikaskuntza esanguratsua

Ikaskuntza esanguratsuaren funtsa da ikasleek ikaskuntza berriak aurrez zituztenekin uztartzea. Horrenbestez, esperientzia motibatzaileak jarri behar dizkiegu eskura, eduki argi eta ondo antolatuak dituztenak, ikasleen ezaugarri psikoebolutiboetara eta ikasle bakoitzaren garapen mailara egokitutako edukiak dituztenak.

Ikasleei aurkeztutako materialak ikaskuntza esanguratsu hori bideratu behar du, eta gatazka kognitiboa sortu behar du haurraren, mundua irudikatzeko buruan dituen eskemak aldatzeko beharra senti dezan, eta eskema horiek berriro orekatzen lagunduko dioten informazio berria eskura dezan. Helburua da haurrek ikasten ikastea. Haurrak oraindik ere bere kabuz egin ezin dituen jardueretan esku hartu behar du irakasleak; laguntza jaso gero ebatz ditzakeen jardueretan, hain zuzen.

Globalizazioa

Haurrek modu globalean ikasten dute, errealitatea osotasun gisa ulerturik. Horregatik, unitate didaktikoen eta lan proiektuen bidez, ikasiko dutenari buruzko ikuspegi globala ematen diegu, lagundu egiten diegu behatzen eta esperimendatzen, lehenbizi nahieran eta ondoren gure galderen bidez gidatuta, loturak egin ditzaten eta inguruan duten munduak zer propietate eta ezaugarri dituen kontura daitezen.

Jardueri buruzko proposamenetan dagoen globalizazio horren ahalegina da haurrari edukiak bizitzan bertan aurkituko dituen moduan ematea; hau da, osotasunean. Eta proposatutako jarduera horien ezinbesteko baldintza da haurrak modu aktiboan parte hartzea. Helburuak bi dira funtsean: batetik, gaitasun guztiak (fisikoak, afektiboak, intelektualak eta asozialak) modu globalean garatzea, eta bestetik, jakintza antolatzea, haurraren interesa eta garapen psikologikoa aintzat harturik, haur hori prestatzeko, etorkizuneko egoerei aurre egiteko gai izan dadin. Kontua ez da gaitasunak bereizita eskuratzea, elkarren artean loturarik gabe; aitzitik, "gaitasun multzoak" eskuratzea da kontua.

Segurtasun eta konfiantza giroa

Harremanak eta afektibitatea oso garrantzitsuak dira hezkuntzako etapa guztietan, baina are garrantzitsuagoak Haur Hezkuntzan.

Haurrak behar-beharrezkoa du maitatzen eta balioesten dutela sentitzea. Horrek asko lagunduko dio ingurunea eta beste haur batzuk pixkanaka ezagutzen dituenean sortuko zaizkion erronkei aurre egiten, eta bizikidetzak dakartzan frustrazio txikiak gainditzen. Haurrek

segurtasuna eta konfiantza sentitzen ez badute, ezin dute bizitzaz bete-betean gozatu. Irakasleek hori kontuan hartu eta haurren arteko harremanak sustatu behar dituzte. Jarraibideak eskaini behar dituzte, haurrek aukera izan dezaten, adibidez, ikuspuntu desberdinak alderatzeko eta aldatzeko, interesak bateratzeko, taldeko erabakiak hartzeko, elkarri laguntzeko eta gatazkak hitz eginez gainditzeko.

Haurra zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta irakaslearen behar handiagoa izango du. Zailtasun larriren bat badu, erreferentziazko heldua berehala aurkitzeko aukera izan behar du, hari laguntza eskatzeko, nahiz eta ikastaldea talde autonomoetan aritu. Berehala lagunduz gero, haurra oso gustura sentituko da. Komeni da hurrekin konfiantza harremana sortzea. Horretarako, keinuak, jarrerak, hurbiltze fisikoa, hizketa baliatuko ditugu, haurrek maitatzen, balioesten eta errespetatzen ditugula senti dezaten. Alderdi horiek guztiek asko lagunduko diote haurrari bere autoestimua modu positiboan eraikitzen. Beti animatuko ditugu haurrak ahalegintzera eta aurrera egitera, beren ahalbideetan konfiantza izan dezaten.

Jarduera, jolasa eta esperientzia

Haurrek sentipenen bidez jasotzen dute informazioa eta ikasten dute, hainbat objektu eta material erabiliz, manipulaturik eta haiekin esperimenterik. Jolasaren, ekintzaren eta esperimenterikaren bidez, haurrak bere interesak eta motibazioak adierazten ditu, eta objektuek zer propietate duten ikasten du. Irakasleak ziurtatu behar du haurraren jarduna bera dela haren ikaskuntzaren eta garapenaren iturri nagusietako bat, eta horretarako, haren motibazioa eta parte hartze aktiboa bultzatzeko giroa sortu behar du.